


ITSASADARRAK ETA PADURAK



Eremu Funtzionalaren muga administratiboetatik kanpo hedatzen diren mugak dituzten Bidasoa eta Oria ibaien bokaleak. Unitate oso bereziak fisiografikoki, paduraren agerpen paisajistikoagatik bereizten dira, lokatzetako marearteko zonak eta gainitsasaldien areak bata bestearen ondoren agertzen diren tokia. Itsasaldien eragina jasan eta itsasoaren maila gutxigatik gaintitzen duten lurzoru lauak eratzen dituzte. Ur gezarekin elkartzerakoan ingurune baldintza bereziak eta berezko aberastasun biologiko eta nekazaritza-aberastasuna sortzen dira. Bere azalera gutxitu egin da alboko eremu urbanoen eta azpiegitura eta hauekin erlazionaturiko eraikinen hedapenagatik.


PAISAIA UNITATEAK (2): BIDASOAREN ITSASADARRA ETA PADURAK ETA ORIA ITSASADARRA.

PAISAIA UNITATEA



RM.1

BIDASOAREN ITSASADAR ETA PADURAK

BADIAK ETA ITSASBAZTERREKO HIRI EREMUAK



Bidasoaren bokale zabaletik, non ur geza eta ur gazia topatzen diren, mareek eragiten duten tokira arte, paisaia ibai-itsas eraginak modelaturik dago. Bidasoaren estuarioak bere eraginpeko eremuan espazio laua sortzen du, lezkadi eta ihitokidun ertz lohitsuakin, sekularki giza presioagatik atzeratua. Beraz, sakonki eraldaturiko inguruko paisaia oso berezi batez ari gara, ur-orriak, padurek eta hauetan tradizionalki landatutako baratzeek integraturik.



Plaiaundiren airetiko ikuspegia .



Galera eta Santiagoaurre uharten airetiko ikuspegia .




PU-aren hiru dimentsioko simulazioa HM-tik






Itsasaldien eraginpeko Bidasoa ibaiaren zatian kokatzen den unitatea, Bortziriak mendigune granitikoak eratzen duen bilararen hondoaren amaiera eta Amuteko-itsasadarrarekiko elkargunetik gertu dagoen itsasadarraren hasiera bitartean, zeinak mendebaldetik padura hedatzen duen Plaiaundi bezala ezaguna den espazio paduratsua eratuz. Ur gazien eta itsasoaren arteko topaketak fenomeno sedimentario bereizgarriak eragiten ditu, padura eratuz, ia itsasmailan dagoen lautada zingiratsua, interkomunikaturiko ur gaziko aintzira-sistema eratzen duten mareen eraginaren mende dagoena. Erretiratzerakoan, mareek marearteke zona lohitsuak uzten dituzte, lezkadi eta ihitokietako bere orla bereizgarriarekin. Aberastasun biologiko handiko espazioa, tradizionalki eustormen bitartez 'eutsia' izan da, nekazaritza-ibar aberatsaren laborantza posible egiten zutenak. Horrela, horma eta uhate sistemen bitartez, espazio asko lehortu eta, euri-ura irteten usten zuten baino padurako ur gazia sartzea galarazten zuten sistemen bidez, gatzgabetu ziren. Eraitza bezala, ortuak eta belardiak, euren egitura bereizgarriarekin, unitatearen berezko paisaiaren parte dira. Autokontsumoari batez ere eskainitako ortu txikiak dira baina esanahi handiarekin, izan ere, aspaldi artoa, sagarrak eta zuhaina landatzen zen azalera zabala hartzen zuten. Paisaia hau menderatu duten dinamika antropikoen artean, presio urbano handiari eta azpiegiturei loturikoa izan da paduraren mugak gehien moldatu dituen. Aireportuaren eta trenbide-plataformaren kasua da, padurari irabazitako gainitsasaldien lur alubialetan finkatuak. Lehena bere pista padura belar-landarediaren artean kokatzeagatik paisajistikoki bere parte izaten jarraitzen du, bere fisionomia eta kromatismo partikularra mantenduz. Ez da horrela trenbide terminalarekin, zeinaren paisaia korridorearen unitatean identifikatzen den, ur gora itsasadarra inguratuz ibarra hartzen duten poligono industrialak bezala. Kontrako zentzuan, eta hiri-presio konstantea izan arren, beste euskal bokaleetan baino txikiagoa izan zen fabrika-garapenak isurketak eta uren kutsadura txikiagotu zituen, interes handiko espazio hau mantentzea ahalbidetuz. Nekazal erabileren uzteak, enklabe batzuetan palustrea den faunaren eta landarediaren mailakako birsorkuntzari lagundu dio, Santiagaurrea eta Galera irlak bezala, zeintzuk Plaiaundirekin batera kontserbazio oneko balio ekologiko handiko padura osatzen duten. Hemen paduran babesten diren fauna espezie asko larreratzen dira, bereziki Pirinioetako mendebaldeko muturretiko bere migrazio-bideko hegaztiak. Azkenik ezin dira Bidasoatik eta zonaldeko erreketatik datozen aspektu ukiezinak ahaztu. Hauek, euren mugaz-haraindiko izaera indartsuarekin, kostaldeko barneko herrien arteko ibai-komunikabidea ziren, herrialdearen sarrera eta irteera igaro gunea, Frantzia eta Espainia bitarteko muga. Zentzu honetan bereizgarriak dira hondaturik dagoen Erlandatzako dorrea, kontrabando, gerra eta exodoen lekuko mutua, eta Faisaien Uhartea, 1659an Pirinioetako Bakearen sinatzearen eszenatoki..

PAISAIUA UNITATEAREN IKUSPENA



IKUSPENA RM.1* - [Color-coded legend] + [Color-coded legend] PU RM.1* *PU Osoak

IKUSPENA-UR-ORRIAK



Muga hauen barruan interikuspena oso altua bada ere, bereziki eremu altuenetan, hauetatik kanpo lotura eza erabatekoa da. Bestalde Hondarribiarekin eta Iruneko hiriarekin ikuste-hondoa partekatzen duen arren ez du ikuste harreman berezirik partekatzen bere unitateekin (deprimituriko bere egoerak eta eraikinetako ikuste-hesiak hari laguntzen diote) lotura eremuetan eta enklabe zehatzetan izan ezik, gehienetan lurraren maila orokorraren gainean altxaturiko muinoak. Era berean, kostaldeko lerroarekiko eta itsaso zabalarekiko ikuste-deskonexioa nabarmentzen da.

BILAKAERA (1957-2014)




PAISAIA UNITATEA

RM.1

BIDASOAREN ITSASADAR ETA PADURAK

BADIAK ETA ITSASBAZTERREKO HIRI EREMUAK

PAISAIAREN KALITATE POSITIBOA (BEREZKOA -EZKERRA- ETA ESKURATUTAKOAK ESKUMA)



Enklabe nabarmenak

- Naturalak, E84, Bidasoaren estuario eta padurak
- Naturalak, E85, Bidasoaren terrazak eta ibaiertza

Elementu nabarmen. Kulturalak (*) eta naturalak (N)


- N4, Faisanen uhartea
- N5, Gomizko ibaiertza
- N6, Lastakoko ibaiertza

Ikur konbentzionalak

- Paisaia Unitateak
- Unitateak RM.1
- Eremu funtzionala
- Udal-erriak
- Autobideak
- Errepide nagusiak
- Trenbideak
- Herriguneak
- Erakintzak


Osagai nabarmenak

- (Enklabe nabarmenetatik kanpo aurkitzen direnak)



IKUSPENA-INPAKTU POSITIBOA

- Garrantzia handiko baliabide fisiografikoak
- Baliabide kulturalak
- Baliabide botanikoak
- Ur-orriak



Paisai nabarmenen gaineko inpaktu negatiboak (UP-ean aurkitutakoak)

Azalerakoak (enklabeen kopurua, erabateko hektareak)

- Altuerako azalera (6,1 ha)
- Hiri-continuum (15,8 ha)
- Azpiegiturak eta erlaziozkoak area, 9 (28,6 ha)
- Degradaturiko beste area batzuk, 2 (1,3 ha)
- Industria pabilioa, 2 (1,7 ha)
- Poligono industrialk, 9 (7,2 ha)

Linealak (erabateko luzera)


- Linea elektrikoak (GTH) (0,5 km)
- Linea elektrikoak (GT) (0,6 km)
- Autobideak, autobideak (0,1 km)
- Errepide nagusiak (11,4 km)
- Errepide nagusiak ezkutak (0,1 km)
- Burdinbideak (0,4 km)

Puntualak (zbk.)

- Linea elektrikoak-dorrea (5)
- Telekomunikazio antenak (1)

Ikur konbentzionalak

- Herriguneak
- Erakintzak
- Korronte-ardatzak
- Eremu funtzionalaren muga
- Udal-terminoak
- Paisaia Unitateak
- Unitateak RM.1




IKUSPENA

- INPAKTU NEGATIBOA -

Inpaktuen kontzentrazioa

- Tipologia 3ko ikuspina
- Tipologia 2ko ikuspina
- Tipologia 1ko ikuspina
- Ikuspegi adierazgarriak gabe



Ikusizko inpaktu mota (nagusia)

- Harrobiak eta hondakindegia
- Poligono industrialk
- Autobideak eta autobideak
- Antenak
- Linea elektrikoak
- Ikuspegi adierazgarriak gabe

E B A L U A K E T A

PAISAIA KALITATE POSITIBOA

Enklabe paisajistiko natural nabarmenak	<i>Oso nabarmenak</i>
Enklabe paisajistiko kultural nabarmenak	<i>Ez nabarmenak</i>
Enklabe paisajistiko natural nabarmenak	<i>Oso nabarmenak</i>
Enklabe paisajistiko kultural nabarmenak	<i>Ez nabarmenak</i>
Osagai nabarmenak (enklabe nabarmenetatik kanpo)	<i>Ez nabarmenak</i>
Ikuspegi positiboak	<i>Agerikoak</i>

PAISAIA KALITATE NEGATIBOA


Ikuste inpaktu negatibodun azalerak	<i>Agerikoak</i>
Ikuste inpaktu negatibodun elementu linealak	<i>Agerikoak</i>
Ikuste inpaktu negatibodun elementu puntualak	<i>Agerikoak</i>
Ikuspegi negatiboak	<i>Agerikoak</i>

BALIO UKIEZINEK LORTUTAKO KALITATEA

Balio ekologikoak	<i>Oso nabarmenak</i>
Balio ukiezinak (historiko-kulturalak)	<i>Oso nabarmenak</i>
Balio sozialak	<i>Oso nabarmenak</i>

BALIO NATURALAK VS. EKOIZPEN BALIOAK


- Paisaia naturalak
- Erdieraldaturiko paisaia
- Paisaia artifizialak



PAISAIA HAUSKORTASUNA

Berezko hauskortasuna	<i>Oso nabarmenak</i>
Eguneroko ikuspen eskuragarritasuna	<i>Oso nabarmenak</i>
Kontenplaziozko ikuspen eskuragarritasuna	<i>Oso nabarmenak</i>

BEREZKO HAUSKORTASUNA



PAISAIA HAUSKORTASUNA

- BAXIA
- ERTAIN-BAXIA
- ERTAINA
- ERTAIN-ALTUA


- Ikur konbentzionalak
- Autobideak
- Errepide nagusiak
- Trenbideak
- Herriguneak
- Erakintzak
- Iturriak

PAISAIA UNITATEA

RM.1

BIDASOAREN ITSASADAR ETA PADURAK

EGUNEROKO IKUSTE-ESKURAGARRITASUNA



IKUSTE ESKURAGARRITASUNA
-EGUNEROKOA-

- Oso Altua
- Altua
- Ertaina
- Baxua
- Oso Baxua
- Adierazgarritsun gutxikoa

Behaketa-puntuak

- Autobideak eta autobiak
- Errepide nagusiak
- Zorudun bestelako bideak
- Burdinbideak
- Herriguneak
- Eraikuntzak
- Industria-nabe, tertziarioa


IKUSTE ESKURAGARRITASUNA
-KONTENPLAZIOZKOA-

- Altua
- Ertaina
- Baxua
- Adierazgarritsun gutxikoa

Kontenplazio-puntuak


- Puntu nagusia
- Bigarren mailako puntua
- Errepide paisajistikoak
- Oinez edo bizikletazko ibilbideak

KONTENPLAZIOZKO IKUSTE ESKURAGARRITASUNA




RÍAS Y MARISMAS

BALIO UKIEZINEK LORTUTAKO KALITATEA




- Balio ukiezinak**
- Enklabe nabarmenak
 - Elementu nabarmenak
 - Beste elementu batzuk
 - Balio ekologikoa
- Balio sozialak**
- Etorreraren handieneko ibilbideak
 - Bidasoko Bide Berdea
 - Plaiaundi
 - Santiago Bidea (barrualdeko bidea)
 - Santiago Bidea (kostako bidea)
 - Ibilbide laburrak eta bertako ibilbideak
- Ikur konbentzionalak**
- Paisaia Unitateak
 - Unitateak RM.1
 - Eremu funtzionala
 - Udalerriak
 - Autobideak
 - Errepide nagusiak
 - Trenbidea
 - Herriguneak
 - Eraikinak

LEGEZKO BALDINTZATZAILEAK



- LURRALDE PLANAK**
- Nekazaritza eta basozaintzako LPS
 - Nekazaritza eta abeltzaintzako Balio estrategiko altua
 - Itasertzeko Babesteko eta Antolatze LPS
 - Ekosistemen hobekuntzarako guneak
 - Áreas degradadas a recuperar
 - Babes zorrotz berezia
- INGURUMENAREN BABESA**
- Parke naturala/Parque natural, Aialko Harria
 - KBE/ZEC/NAC, Aialko harria
 - KBE/ZEC/NAC, Teingudi-Bidasoa
- ONDARE BABESA**
- Babes arkeologikoa
 - Ondare Katalogo Inbentarioa
 - Babes arkeologikoa
 - Ondare Katalogo Inbentarioa
- Ikur konbentzionalak**
- Paisaia Unitateak
 - Unitateak RM.1
 - Eremu funtzionala
 - Udalerriak
 - Autobideak
 - Errepide nagusiak
 - Trenbidea
 - Herriguneak
 - Eraikinak

PAISAIA UNITATEA		RM.1		BIDASOAKO ITSASADARRA ETA PADURAK		ITSASADARRAK ETA PADURAK	
							
Bidasoaren azken zatiaren padurak hartzen ditu, non ibai-dinamikek eta mareek espazio laua eta lezkadiz eta ihidiz estalitako urertzak moldatu dituzten. Sakon eraldatutako Irungo konurbazioaren inguruak sortzen duen kontrastea nabarmentzekoa da, ur-lamina, padura eta baratzeek osatzen duten paisaia bereziaren ondoan. Santiagoaurrea eta Galera irlek, eta Plaiaundiko padurak balio ekologiko handia duen kontserbazio-egoera oneko Padura osatzen dute. Giza-presioak moldekatu dituen paduraren mugak bereziki nabarmentzen dira unitate honetan: hiri-mugak, aireportua edo trenbide-plataformaren kasua da, padurari irabazitako lursail alubial supramarealetan. Kosta barneko herrien eta Frantziako ´muga´ren arteko ibai-komunikaziorako mugarteko bide bezala ere oso izaera markatua dauka: Endarlatza dorrearen hondarrak, Faisaien Irla... kontrabando, gerra eta exodoen lekuko mutuak. Osatzen duen alde frantziarrarekiko zatiezina. Kosta-lerroa eta itsaso zabalarekiko ikuspen-deskonexioa ere nabarmenta da.							
Izaera orokorreko PKH:				Kontserbazioa eta hedapena		PIBE	
Paisaia naturalaren mantentzea eta haren balioen hedapena. Paisaiaren gaineko inpaktu negatiboen hobekuntza puntuala.							
PKH ESPEZIFIKOAK:							
G.1. Paisaiaren baliabidea indar handiagoz txertatu etorkizuneko garapen-guneak aurkitzeko orduan aukerak aztertzen direnean. Txingudiko berrantolatze integraleko korapiloaren izaera estrategikoko eremua.							
PKH hiri kokalekuei dagokienez. (U). U.M.1 Ikus-kalitate txikiko etxetarako kokalekuak hobetzea. <u>Irun</u>: Arranputzu.				U.M.3 Hiriguneetarako sarbideen itxura hobetzea. Sarrera Irunera Hendaiatik			
PKH garraio, energia eta telekomunikazioen azpiegiturei dagokienez I.M.1 Garraio azpiegiturak hobetzea (elementuak eta ikuspegiak). Errepide nagusiak .		I.M.3. Bigarren mailako errepideen ikuspegia hobetzea. Unitate guztian.		PKH abeltzaintzako eta nekazaritzako erabilerei dagokienez A.C.1 Paisaian garrantzizkoa den nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia zaintzea. - Hondarribiako nekazal eta abeltzaintza eremu estrategikoa. - Bidasoa Ifarraldeko nekazal eta abeltzaintza eremu estrategikoa. - Bidasoa Hegoaldeko nekazal eta abeltzaintza eremu estrategikoa. - Jaizubiako nekazal eta abeltzaintza eremu estrategikoa			
PKH kultura-ondareari dagokionez. (P). P.C.1 Ondarea zaindu eta mantentzea: Militarra, erlijiosoa, industrial, zibila, etnografikoa eta bide historikoak, paisaia egituratzen duten ardatz diren aldetik. - Donejakue bidea (kostako ibilbidea). - Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea). - Plaiaundi (Irun). - Bidasoako bide berdea .		PKH paisaia naturalei dagokienez. (N). N.C.1 Baliabide fisiografikoak mantentzea. - Bidasoako terraza eta ibaiertza. (Irun). N.C.3. Ur-lamina nagusien eta atxikitako landaretzaren paisaia mantentzea. - Bidasoako estuario, padurak eta bokalea.		N.R.1 Ur-bazter tartea berroneratu eta hobetzea. Komunikabide-azpiegiturak dituzten ibaiertzak. Bidasoa ibaia (Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzen LPS). Berreskuratzeko beharra duten ibaiertzak (Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzen LPS)..			


UNIDAD DE PAISAJE

RM.2




ORIAKO ITSASADARRA



BADIAK ETA ITSASBAZTERREKO HIRI EREMUAK



Oria itsasadarra kostaldearen eta Lasarte-Oriaren arteko tartean eratzen da, bere arraste eta higadura indarra galduz itsasoa barneratzen den tokira arte. Itsasoaren eta ur gezen topaketak ingurune-baldintza berezi batzuk sortzen ditu, non, padura, lokatzetako marearteko zonak eta gainitsasaldien eremuak segidan agertzen diren. Ibaiek meandro nabarmenak eratzen dituen tartea da, zeintzuen artean berezko padura paisaiako txatalak eta hari irabazitako ibar-laborantza lurrekin batera mosaikoko haltzadiak agertzen diren. Angula-arrantza tradizionalerako aparailuez prestatuturik dauden ontzi txikiak zain dituzten amarratzeek ibai-itsaso paisaia izaera indartzen dute.



Oriaren itsasadarra Aginaga parean .



Oriaren ordoki alubiala Usurbilen .



PU-aren hiru dimentsioko simulazioa E-tik .

UNIDAD DE PAISAJE

RM.2



ORIAKO ITSASADARRA

BADIAK ETA ITSASBAZTERREKO HIRI EREMUAK




Bere tarte baxuan, Lasarte-Oriaren parean, Oria ibaiak norabide aldaketa zakarra du, bere ibilgu altutik jarraituriko norabidea (HHM-IIE) aldatuz, biraketan ia angelu zuzena eratzen duelarik. Añorgako edo Juncal-etako ubideak, Ondarretako hondartzan itsasoratzen dena, seguruenik Oria ibaiak Kantauri itsasoan itsasoratzeko norabide hau jarraitzen zuela, Mendizorrotz eta Santa Barbarako mendiak lotzen dituen Teresategi (67 m) mendixkarekin blokeatzerakoan sorturiko etenera arte, uste izatea eragiten du. Mendixka honek, bere mendi-adarrek bezala, Urumea eta Oriaren arro baxuak banantzen ditu gaur egun. Blokeo honek, Oriak, bere itsasorako irteeraren bila, Mendizorrotz eta Bordatxo kostaldeko lerrokatzeak inguratzen 'behartzen' du, bere ibilgua Usurbilerantz desbideratuz. Puntu honetatik aurrera, astiro igarotzen da meandro zabalak eratuz. Bailara lauho hondo honek, ia itsaso mailako kotarekin, lokatzetako marearteko zonak eta gainitsasaldien eremuak segidan dituen espazioa moldatzen duen mareen eragina jasaten du. Itsasoaren eta ur gezen topaketak ingurune-baldintza berezi batzuk sortzen ditu, mareen eraginaren mendean dauden sedimentu kontinentalen metaketarekin, bai itsaso uren bai ur gezen eragina izanez, non zona lohitsuak, lezkadiak eta ihitokiak agertzen diren. Hauen atzean haltzadi etena, tarte batzuk oihan-plantazioak bihurtuta. Itsasadarrean, Aginagaren parean, ibai-amarratzeetan estimatutako angulak harrapatzeko prestaturik dauden ontziak zain daude. Ertzean Mapil ontziola aurkitzen da, XVII. mende hasieran dimentsio handiko galeoi manufakturarako Oria-ko erribera osoko onena bezala hartzen zena. Eraikitako paisaiarekin jarraituz, unitatea bi azpiegiturek mugaturik aurkitzen da, itsasadarraren ezkerreko aldetik igarotzen den Euskotrenaren linea eta eskumako aldetik N-634 errepide nazionala, Aginaga auzoa zeharkatuz. Ibaian gora, alde honek Usurbil herritik aurrera jasaten duen eraldaketa, eremu urbano eta industrialekin, azpiegitura eta elkarturiko eraikinekin, paisaiaren hautemate aldaketa erradikala eragiten du, jada Oria Baxuaren Korridorean integraturik. Ibaian behera, itsasadarraren azkeneko tarteak bere paisaiarik bereizgarriena eragiten du, Orio herriko bere bokalean, alboko Urola-Kosta Eremu Funtzionalaren lurretan.

PAISAIA UNITATEAREN IKUSPENA



Bere lautasunak eta forma estu eta bihurtasunak barruko interikuspeneko balio baxuei bide ematen diete. Ostera, Andatza Mendiko iparreko hegaletatik eta gailurretik; Bordatxoren hegoaldeko hegaletatik eta Mendizorrotz-en sokaren mendebaldeko erdialdetik bereziki ikusgarria da. Hura ardatz gisako bere kokapenaren ondorio da, topografikoki deprimiturik, lehen aipatutako erliebeek, Mendizorrotz iparraldean eta Andatza Mendia hegoaldean, mugatutako ikuspen-unitate nabaria. Eremu honetatik kanpo, erabateko ikuste-deskonexioa aurkezten du gainontzeko Eremu Funtzionalarekin.

BILAKAERA (1957-2014)




PAISAIA UNITATEA

RM.2




ORIAKO ITSASADARRA

BADIAK ETA ITSASBAZTERREKO HIRI EREMUAK

PAISAIAREN KALITATE POSITIBOA (BEREZKOA -EZKERRA- ETA ESKURATUTAKOAK ESKUMA)



IKUSPENA-INPAKTU POSITIBOA



PAISAIAREN KALITATE NEGATIBOA (BEREZKOA -EZKERRA- ETA ESKURATUTAKOAK ESKUMA)

E B A L U A K E T A

PAISAIA KALITATE POSITIBOA

Enklabe paisajistiko natural nabarmenak	Oso nabarmenak
Enklabe paisajistiko kultural nabarmenak	Ez nabarmenak
Enklabe paisajistiko natural nabarmenak	Oso nabarmenak
Enklabe paisajistiko natural nabarmenak	Agerikoak
Osagai nabarmenak (enklabe nabarmenetatik kanpo)	Agerikoak
Ikuspegi positiboak	Agerikoak

PAISAIA KALITATE NEGATIBOA


Ikuste inpaktu negatibodun azalerak	Agerikoak
Ikuste inpaktu negatibodun elementu linealak	Agerikoak
Ikuste inpaktu negatibodun elementu puntualak	Ez nabarmenak
Ikuspegi negatiboak	Oso nabarmenak

BALIO UKIEZINEK LORTURIKO KALITATEA

Balio ekologikoak	Oso nabarmenak
Balio ukiezinak (historiko-kulturalak)	Oso nabarmenak
Balio sozialak	Agerikoak

BALIO NATURALAK VS. EKOIZPEN BALIOAK


Paisaia naturalak
Erdieraldaturiko paisaia
Paisaia artifizialak




PAISAIA HAUSKORTASUNA

Berezko hauskortasuna	Oso nabarmenak
Eguneroko ikuspen eskuragarritasuna	Oso nabarmenak
Kontenplaziozko ikuspen eskuragarritasuna	Agerikoak

BEREZKO HAUSKORTASUNA



PAISAIA UNITATEA		RM.2		ORIAKO ITSASADARRA		ITSASADARRAK ETA PADURAK	
							
Unitate hau kosta eta Lasarte-Oriaren arteko Oria ibaiaren zatian eratzen da, itsasadar eta itsas-ibaitar dinamika tipiko baten morfologiarekin. Zati honetan ibaiak meandroak osatzen ditu, non paduretako paisaia tipikoa ikus daitekeen, ibarreko laboreek haltzadiekin osatutako mosaikoarekin batera. Aginaga parean, itsasadarrean angulatarako txalupen amarratzeko ugari ikusten dira. Mapil ontziola historikoa ere azpimarragarria da. Elementu desitxuratzaileei dagokionez, Euskotren línea aipatu behar da, itsasadarraren ezkerreko aldetik, eta N-634 errepidea, eskuineko aldetik.							
Izaera orokorreko PKH:		Kontserbazioa eta hedapena				PIBE	
Paisaia naturalaren mantentzea eta haren balioen hedapena. Paisaiaren gaineko inpaktu negatiboen hobekuntza puntuala							
PKH ESPEZIFIKOAK:							
G.1. Paisaiaren baliabidea indar handiagoz txertatu etorkizuneko garapen-guneak aurkitzeko orduan aukerak aztertzen direnean. Lasarte-Oria, Zubieta Goialde eta Aritzeta korapiloko izaera estrategikoko eremua.							
PKH hiri kokalekuei dagokienez. (U). U.C.2 Landa gunek mantentzea. Aginaga.		PKH garraio, energia eta telekomunikazioen azpiegiturei dagokienez I.M.3. Bigarren mailako errepideen ikuspegia hobetzea. Unitate guztian.		PKH abeltzaintzako eta nekazaritzako erabilerei dagokienez A.C.1 Paisaian garrantzizkoa den nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia zaintzea. - Aginagako nekazal eta abeltzaintza eremu estrategikoa. - Zubietako nekazal eta abeltzaintza eremu estrategikoa .			
PKH kultura-ondareari dagokionez. (P). P.C.1 Ondarea zaindu eta mantentzea: Militarra, erlijiosoa, industrial, zibila, etnografikoa eta bide historikoak, paisaia egituratzen duten ardatz diren aldetik. - Mapil untziola (Usurbil) - Urdaiaga dorretxea (Usurbil). - Sariaundi baserria (Usurbil). - GR-34.				N.C.3. Ur-lamina nagusien eta atxikitako landaretzaren paisaia mantentzea. - Oriako itsasadarreko padurak: Aginaga, Itzao eta Sariako erriberak. N.R.1 Ur-bazter tarteak berroneratu eta hobetzea. - Komunikabide-azpiegiturak dituzten ibaiertzak. Bidasoa ibaia (Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko LPS).			

